

Jardueren Oroitidazkia 2009

SABINO ARANA FUNDAZIOA

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 3.- LURRALDE IRASKUNDEAK
 - 3.1.- LUIS DE ELEIZALDE IRASKUNDEA
 - 3.2.- UZTURRE IRASKUNDEA
- 4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA
 - MINTEGIAK
 - HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK
- 5.-EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA
- 6.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 7.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA
- 8.- DURANGOKO AZOKA
- 9.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTEHARTZEA
- 10.- BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

*** JOSE ANTONIO AGIRRE LEHENDAKARIA BATZORDEA ERATU**

2009ko azaroaren 2an ofizialki eratu zen Agirre lehendakariaren heriotzaren 50. urteurreneko ospakizunez ardurako den Batzorde Antolatzailea. Berori arduratuko da, aipatu urtemugaren karietara 2010 osoan garatuko diren jarduerak eta ekitaldiak sustatzeaz.

Aipatu “Agirre Lehendakaria Batzordea” omenduaren eta politikagintzan harekin batera jardun zuten zenbait pertsonaia historikoren senideak eta berarekin zerikusia izan zuten euskal instituzioak —Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako aldundiak, Bilbo, Getxo eta Donibane Lohitzuneko udalak— EAJ-PNV, Athletic Club eta Sabino Arana Fundazioa daude ordezkaturik.

Data hori baino lehenago, irailaren 24an, aurkeztu zitzaion ekimena gizarteari hedabideen bitartez.



*** LUIS DE ARANAren BIOGRAFIA**

Luis Arana (1862-1951) bizkaitarraren figura gaur egun ia erabat ezezaguna da. Ez dago haren gaineko argitalpenik eta bera aipatzen duten artikulua ere oso gutxi dira. Hala ere, XIX. mendearen azken alde eta XX.aren lehenengo erdialdea bitartean lehenengo mailako eragile politikoa izan zen. Bera izan zen bere anaia Sabino abiarazi zuena, berak ikusarazi baitzion, 1882an izan zuten elkarrizketa batean, “euskal nazioaren ideia“.

Luis Aranaren gaineko ikerketa-egitasmoa funtsezko harroin bitan datza. Alde batetik, Artea Arratiako Euskal Abertzaletasun Agiritegian, eta, bestetik, Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteizen, edo Donostian dagoen Koldo Mitxelena, besteak beste.

*** GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEAREN ETA HERMESEN PLAN ESTRATEGIKOA**

Sabino Arana Fundazioak, atxikimendu politikoa duten fundazioen, think tanks deritzenen, konparaziozko azterketa bat egiteko eskatu zion Ikei enpresari honako helburu hauekin: Fundazioak garatzen dituen ekintzak hobetzea eta berritzea eta, halaber, haien hedapena, irispidea, haiekiko ezagutza eta duten eragina jakitea.

Azterketaren xedea bikoitza da: bateko, atxikimendu politikoa duten fundazioen, think tanks deritzenen, funtzionamendua eta eskaintzen dituzten zerbitzuak jakitea, eta besteko, Sabino Arana Fundazioak berak susta ditzakeen egikera interesgarriak identifikatzea.

Halako kasuen azterketaren emaitzak fitxa laburtuak erabiliz azaldu da. Fitxak erabiltzeak konparaziozko azterketa objektiboagoak egitea ahalbidetzen du: 14 fundazio izan dira hautatuak: Honrad Adenauer Fundazioa (Alemania), Robert Schuman Fundazioa (Frantzia), European Ideas Network (Brusela), Magna Carta Fundazioa (Italia), Bruegel Fundazioa (Brusela), Policy Network Fundazioa (Erresuma Batua), Center for American Progress Fundazioa (AEB), American Enterprise Institute for Public Policy Research (AEB), Alternativas Fundazioa (Espainia), Ideas Fundazioa (Espainia), Fundación para el Análisis y los Estudios Sociales – FAES (Espainia), Real Instituto Elcano (Espainia), Trias Fargas Fundazioa (Katalunia), Galiza Sempre Fundazioa (Galizia).

*** ALBERTO ONAINDIAren POSTATRUKA 1936 ETA 1945 BITARTEAN**

Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) egindako ikerlana, Agirre lehendakariaren laguntzaile izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko postatrukea eta berak Gerra Zibilean zein II. Mundu Gerran egin zituen gestioak berreskuratzeko.

2.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

Sabino Arana Fundazioak 2009an, berak argitaratzen duen pentsamendu eta historia aldizkariaren beste lau zenbaki argitaratu ditu:

29. zk. (urtarrila): Think Gaur Euskadi 2020

30. zk. (maiatza): Agertoki berriak

31. zk (uztaila): “Bizitza amaitzean, erabakitzekeo eskubiderik?”

32. zk (azaroa): “Eskubide historikoak XXI. mendean?”

EAJ-PNVek bultzatutako Think Gaur Euskadi 2020 gogoeta-esparruaren barruan, Sabino Arana Fundaziok topaketa bat antolatu zuen joan den abenduaren 19an Euskadiko iritzi-sortzailerik garrantzitsuenetako batzuekin eta zenbait hedabide-zuzendarirekin.

Bileraren helburua zen, beste urrats bat aurrera egitea gogoeta-prozesuan, intelektualek zein hedabideetako arduradunek egindako kontrasteetan oinarrituta.



Hain zuzen ere, Hermes-en 29. zenbakian jaso ziren kontraste horiek, Daniel Innerarity, Arantza Urretabizkaia, Mario Fernández, Txema Montero eta Pedro Ugarteren idazlumen bitartez.

Gainera, 29. zenbaki horretan zenbait kolaborazio aipagarri ere argitaratu ziren: Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako

sailburuordearena; Bernat Joan haren kargukide katalanarena; eta Marisol López Xuntaren Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiarena.



Hermes 30ean, bizi garen mundu globalizatuan gertatzen ari diren aldaketa sakonak izan ziren hizpide. Azterketa hori egiteko ardura honako hauei eman zitzairen. Zaragozako Unibertsitateko Filosofia katedradun Daniel Innerarity; Roland Berger-eko Merkataritza eta Teknologiako katedradun irakasle Soumitra Dutta, eta Matthew Fraser, INSEADeko ikerketa-irakasle nagusia.



“Bizitza amaitzean, erabakitze eskubiderik?” gaia planteatu zitzaigun 31. zenbakian. Mario Izeta Bilboko Elizbarrutiko Gotzain Laguntzailea; Jacinto Batiz Santurtziko San Juan de Dios ospitaleko Zainketa Aringarrietarako Unitateko burua; Koldo Martínez Nafarroako Ospitaleko sendagilea eta bioetikan aditua; eta Nazario Oleaga Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko dekanoa izan ziren zenbaki honen orrialdeetan euren iritziak azaldu zituztenak.



Azkenik, 32. zenbakian Miguel Herrero y Rodríguez de Miñón Estatu Kontseiluko kide eta Konstituzioan adituak, Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako presidente ohi eta Zuzenbidean doktoreak, Mitxel Unzueta abokatu eta senatari ohiak eta Jon Arrieta, Joseba Agirreazkuenaga eta Santiago Larrazabal irakasleek XXI. mendean eskubide historikoek duten potentzialtasuna aztertzeraz gonbidatzen gaituzte, haiek eskaintzen duten aukerari dagokionez.

3.- LURRALDE IRASKUNDEAK

Lurralde-iraskundeen bitartez burutu diren jarduerak honako hauek izan dira:

3.1.- Luis de Eleizalde iraskundea

Lekukotasunak biltzea Gipuzkoan

Urte osoan lekukotasun ugari grabatu dira, gure herriaren historiako zuzen-zuzeneko protagonista zenbaitengandik jasota.

3.2.- Uzturre iraskundea

Mahaingurua: “1939ko urriaren 25eko Legea: “irtenbidea? ala “gatazka?”

Mahainguruan: “Eskubide historikoak XXI. mendean?”

Izenburu orokortzat “1839ko urriaren 25eko Legeak 170 urte” ipini zielarik, Sabino Arana Fundazioak mahainguru bi antolatu zituen, lege-testu historiko hark ekarri zuenaz eta XXI. mendean eskubide historikoek duten potentzialtasunaz gogoeta egin eta debatitzeko.



Lehenengo mahaingurua urriaren 15ean izan zen, Euskalduna jauregian, honako aditu hauek parte hartuta: **Joseba Agirreazkuenaga**, EHUko Historia Garaikideko katedraduna; **Jon Arrieta**, Zuzenbidearen Historiako katedraduna, eta **Santiago Larrazabal**, Konstituzio Zuzenbideko irakaslea eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuko zuzendaria.



Handik aste batera, zehazki hilaren 21ean, Melia hotelean, hizlari hauek jardun zuten: **Miguel Herrero y Rodríguez de Miñón** diputatu ohi, Estatu Kontseiluko kide eta Konstituzioan adituak; **Juan Cruz Alli** Nafarroako Gobernuko presidente ohi, Zuzenbidean doktore eta NUPeko Administrazio Zuzenbideko irakasleak; eta **Mitzel Unzueta** abokatu eta senatari ohiak.

Mahaingurua: “Nafarroa: ikurrak eta identitateak”



Alvaro Baraibar, Historian doktorea Nafarroako Unibertsitatetik; **Peio Aierdi**, UPNAko Soziologiako irakasle titularra, eta **Iñigo Zabalza**, abokatuak, mahainguru batean aritu ziren, joan den maiatzaren 28an, Nafarroan *nafartasun*arekin bateratzeko dauden bi identitate-sentipen nagusien bizikidetzaz hitz egiteko, hots: bata euskaltasunerantz zuzendua, eta bestea, espainoltasuna duena gune. Nafarroaren sinbologia ofizialari buruz ere hitz egin zen (Nafarroako bandera, Nafarroako armarrria, Nafarroako ereserkia), haren araupetzeaz, etab.

Hitzaldia: “Eliteak eta klientelismoa Nafarroan”

Fernando Mikelarena Zaragozako Unibertsitateko irakasleak aurkezturik, azaroaren 19an hitzaldi bat eskaini zen, Iruñean halaber. Hizlaria **Ricardo Feliú** soziologoa eta NUPeko irakaslea izan zen, Eliteak eta klientelismoa Nafarroan gai hartuta. Ekitaldia Sabino Arana Fundazioak antolatu zuen, Udalbideren eta Tuterako Nafarren Etxearen laguntzarekin.



4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

4.1.- “Ekonomi eta finantza krisia: etsi edo ekin”



Urtarrilaren 15ean Sabino Arana Fundazioak “Ekonomi eta finantza krisia: etsi edo ekin” izenburuko mintegi bat antolatu zuen Bilboko Euskalduna jauregian, zenbait ekonomialari adituk parte hartuta, eta oraingo nazioarteko ekonomi eta finantza krisia aztertzea xede. Elkarraldi horretan parte hartu zuten, besteak beste: **Jose Luis Bilbao** Bizkaiko Ahalduen Nagusiak, **Gumersindo Ruiz Bravo de Mansilla** Politika Ekonomikoko katedradunak, **Federico Prades** Espainiako

Bankuen Elkarteko Aholkulariak eta **Ana Agirre** Eusko Jaurlaritzako Industria Merkataritza eta Turismo sailburuak.

4.2.- Unibertsitatea eta enpresa: lehen lankide, orain aliatuak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuten, atea itxita, martxoaren 25ean; izenburua: “Unibertsitatea eta enpresa: lehen lankide, orain aliatuak”, eta hogeita hamarretik gora adituk parte hartu zuten, Unibertsitatea eta enpresa bezalako eragile hain garrantzitsu eta aktibo bik arakatu behar dituzten lan-ildo berriei buruz debatitzeko.

Jardunaldiko lehenengo hitzaldia **José-Ginés Mora** Londreseko Unibertsitateko Hezkuntza



Institutuko irakasleak eman zuen, unibertsitarioen arteko lehiek duten garrantziaz hitz egiteko. Beste alde batetik, **Francisco Garmendia**, Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politikoak eta Soziologiako katedraduna Bizkaiko lan-merkatuaz eta enpleguratzeko prestakuntzaz mintzatu zen.

José Luis García Bengoa Confebaskeko Prestakuntza zuzendariak Unibertsitatea

hartu zuen hizpide, enpresa hurbildu egin behar zaion aliatu estrategikoa denez gero Unibertsitatearentzat.

Boloniako prozesua eta Goi Hezkuntzarako Europar Eremuaren (GHEE) ezarrerak ere erakarri zuen arreta aipatu jardunaldian. Hain zuzen ere, unibertsitate-esparrutik aurkeztu zuten jakinarazpen bana **José M^a Aizega** Mondragon Unibertsitateko Erretoreorde Akademikoak, **María Saiz** UPV-EHUko Kanpo Harremanetarako zuzendariak, eta **Roberto San Salvador** Deustuko Unibertsitateko Komunikazioa, Hizkuntz Politika eta

Ikasleen Erretoreordeak. Bakoitzaren unibertsitatearen eta enpresarekiko harremanaren esperientzia azaltzea egokitu zitzaien, baita gaur egun bizi dugun testuinguru honetan zeintzuk izan daitezkeen harreman horren ildoak ere.

Elkarraldian baita parte hartu zuten honako hauek ere: **Idoia Agirre**, DEMAko gerentea; **Jon Arrieta** Novia Salcedo Fundazioko Lehendakaria; **Guillermo Dorronsoro**, Innobasqueko Berrikuntza Teknologikoko zuzendari nagusia; **Ignacio Lakunza**, Mondragoneko Eskola Politeknikoko zuzendaria; **Carmen Méndez**, Bizkaia Xedekoa; **José Miguel Martínez**, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko presidentea; **Xabier Sagarna**, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko prestakuntza etengabeko prestakuntzaren koordinatzailea; **Enrique Zuazua**, BCAM-Basque Center for Applied Mathematics-eko zuzendari zientifikoa; **Kepa Zubieta**, Iberdrolako Giza Baliabideen Garapenerako zuzendaria; **Juan Ignacio Pérez Iglesias**, UPV-EHU errektore ohia, eta **Alaitz Landaluze**, Innobasqueren Berrikuntza Teknologikoko Programetarako zuzendaria, besteak beste.

4.3.- “Bilboren elkarrizketak: gure munduaren eraldaketa. Estatua, Merkatua eta Komunitatea, trilogia berri dohainez betea”

“Bilboren elkarrizketak: gure munduaren eraldaketa” jardunaldien lehenengo aldia 2008an egin zen; orduko hartan politika humanisten kokapenez eta politika publiko ororen ardatz pertsona ipini beharraz hitz egin zen, baita Amerikan zein Europan dauden konbergentzia-ereduez ere, eta oraingo honetan beste erronka bat dugu aurrean, aurreko urtean halako izaria izango zuenik ezta burutik ere pasatuko ez zitzaiguna, hots: munduak gaur egun bizi duen ekonomi krisia eta horrentzat egon daitezkeen irtenbideak.

Politikari latinoamerikar eta europar zenbaitek eta nazioarteko beste aditu batzuek — besteak beste: **Franco Danieli**, Italiako Atzerri Gaietarako Ministro-orde ohia; **Claudio Huepe**, Kristau Demokraziako Nazioarteko idazkaria eta Txileko ministro eta diputatu ohia; **Sandro Gozi**, Italiako Alderdi Demokratiko diputatua, edo **Gutenberg Martínez**, Txileko Diputatuen Ganberako mahaiburua ohia— joan den maiatzaren 7an Estatua, merkatua eta komunitatea trilogia birsortu batean oinarritutako paradigma berria aztertutuz, pertsona bera eta herritarren erkidegoa politika berrien erdi-erdian kokatuko dituen finantza eta ekonomi arkitektura berri batean aurrera egiten saiatzea helburu.

4.3.- “Segurtasuna eta defentsa: erronka berriak munduarentzat”

Europako Demokraten Institutuak eta Sabino Arana Fundazioak jardunaldi bat antolatu zuten nazioarteko aditu zenbaitekin, maiatzaren 21ean, Europar Batasuneko segurtasun eta defentsa politika europarrak eztabaidatzeko. Frantzia, Txekiar Errepublika, Italia, Txipre eta Euskadiko aditu zenbait kazetari, parlamentari, intelektual eta beste aditu multzo batzuetako jendearekin bildu ziren, gai hur zutela debategai.

Bilbora bilduko diren pertsona nabarmenen artean aipatu behar dira, besteak beste: **François Lafond**, AEBetako German Marshall Fundazioaren Pariseko zuzendaria; **Tomas Weiss**, EUROPEUM-Europar Politikako Institutuaren zuzendaritzako kidea eta Karlosen Unibertsitateko (Praga) ikertzailea; **Giovanni Gasparini**, Nazioarteko Gaietarako Nazioarteko Institutuaren (Erroma) zuzendaritzako kidea eta ikertzaile seniorra; **Antonios**

Stylianou, Nikosiako (Txipre) Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea, eta **Luca Bader**, Europako Demokratien Institutuko zuzendaria. Europako Parlamentuko EAJ-PNVren diptutatu **Izaskun Bilbaok** ere parte hartu zuen elkarraldian.

4.4.- “Nahia da bidea. Europar Batzordearen ekarpena Ipar Irlandako bake-prozesuan”

Joan den maiatzaren 27an EAJ-PNVren EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk eta Pat Colgan-ek, EBren Programa Bereziatarako Erakundearen kudeaketa arduradunak, giza eskubideen aldeko elkarte zenbaitetako hogeita hamarretik gora ordezkari, diplomazialari, katedradun,



kazetari, politikari, eta besterekin batera, Europar Batzordeak Europako baketze-prozesuetan betetzen duen eginkizunaz hitz egiteko, eta Euskadin ere antzeko mekanismoak garatzeko aukera aztertzea xede, Sabino Arana Fundazioak antolatutako mintegi batean parte hartu zuten.

Iñigo Urkulluk europar instituzioek euskal gatazkaren konponketan parte hartu behar dutela aldarrikatu zuen, ezen “nazioarteko ikuskatzaile guztiak bat datoz adieraztean Europaren parte hartze hori, iparramerikarren parte hartzearekin batera, funtsezkoa izan zela Ipar Irlandako bake-prozesuaren arrakastarako”.



Pat Colgan-ek, bere aldetik, egitasmo benetan handigura bat aurkeztu zuen: halako sare bat sortzea non, Europar Batasunaren mugen barruan bake-prozesuak sendotzen laguntzea xede, euren esperientziak elkartrukatu nahi dituzten instituzioak eta gizarte-erakundeak bildu daitezten.

“Sare hori bultzatu ez ezik, bertan parte hartuko dugu ere, helburu bikoitz batekin: ikastea eta konpartitzea. Ipar Irlandan funtzionatu duen guztitik ikasi nahi dugu; arlo horri buruz europar instituzioekiko komunikazio zuzen bat ireki nahi dugu, eta geuk ere, oso inguruabar zailetan modu jasangarrian garatutako gizarte bat eraikitzen dugun esperientzia eskainiko dugu” adierazi zuen EAJ-PNVren EBBko lehendakariak.

4.5.- “Bizitza amaitzean, erabakitze eskubiderik?”

Ekainaren 10ean Sheraton hotela, goizez, eta Euskalduna jauregia, arratsaldez, debate “lasai, nare, zorrotz eta sakon” baten agertoki izan ziren, Sabino Arana Fundazioak “Bizitza amaitzean, erabakitze eskubiderik? izenburupean antolatutako jardunaldi batean.



Goizean Bilboko Sheraton hotolean gauzatutako jarduerak bost hitzaldi eskaini zituen berrogei bat adituren aurrean, besteak beste, biziaren aldeko elkarteetako eta duintasunez hiltzeko eskubidearen aldekoetako ordezkariak, sendagileak eta magistratuak. Jakinarazpenak honako hauen ardura izan ziren **Mario Iceta** Bilboko Elizbarrutiko gotzain laguntzailea; **Luis Montes** mediku anestesista eta Leganesko (Madril) Severo Ochoa Ospitaleko

larrialdietako zerbitzuburu ohia; **Nazarío Oleaga**, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko dekanoa eta Euskal Abokatzaren Kontseiluko mahaiburua; **Jacinto Batiz** San Juan de Dios Ospitaleko Zainketa Aringarrietako Unitateko burua; eta **Koldo Martínez**, Nafarroako Ospitaleko medikua eta bioetikan aditua Arratsaldean, Montesek eta Icetak hitzaldi bana eman zuten Euskaldunan.

4.5.- “Norantz doa Afrika?”



Azaroaren 17an “*Norantz doa Afrika?*” hitzaldi-sortaren barruan, mintegi bat egin zen Fundazioaren egoitzan, instituzioen, enpresen, elkarten, gizarte-erakundeen (ACNUR, UNICEF, UNESCO Etxea, Gernika, Gogoratzuz, Amnesty International, CEAR, etab.) hogeita hamar bat ordezkariak parte hartuta, eta haiek

batera, **Jean Lokenga** UNICEFen Benin-eko Adinez Txikien Babeserako zuzendari eta Pax Romanako nazioarteko presidente ohiak.

Jardunaldian zenbait kontu izan ziren hizpide, hala nola, erreformen beharra, ustelkeriaren aurkako politikak eta afrikar kontinentean txirotasunaren aurka borrokatu beharra.

HITZALDIK ETA MAHAINGURUAK

4.6.- "Ekonomi eta finantza krisia: etsi edo ekin"

“Ekonomi eta finantza krisia: etsi edo ekin” izenburupean, urtarrilaren 15ean, Sabino



Arana Fundazioak elkarraldi bat antolatu zuen ekonomia arloko aditu zenbaitekin, gaur egungo nazioarteko ekonomi eta finantza-krisia aztertzeko. Ekitaldian baita parte hartu zuten ere, **Juan Jose Ibarretxe** Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, **Aurelio Martínez Estévez** Kreditu Ofizialeko Institutuko (ICO) presidentea eta **Gumersindo Ruiz Bravo de Mansilla** Politika Ekonomikoko katedradunak, besteak beste.

Ibarretxe lehendakariak bere hitzaldian nabarmendu zuen, “ bide berriak eta ezezagunak ireki behar direla, krisian gora eskalatzeko”. Lehendakariak bere mintzaldia hasteko salatu zuen: “orain arte aukeratutako irtenbideak finantza-erakundeak porrotetik salbatzera zuzendu direla”, baina ez dutela lortu enpresa-sektoreranzko kreditu-jarioa normaltzerik”. Ildo horretan, adierazi zuen ezinbestekoa dela “finantza-sistemaren erregulazio- eta kontrol-tresna berriak ezartzea, hala mundu mailan, nola Estatu bakoitzean”, espekulazio-burbuilak saihesteko.



Beren aldetik, Kreditu Ofizialeko Institutuko (ICO) presidente Aurelio Martínez Estévezek eta Gumersindo Ruiz Bravo de Mansilla Politika Ekonomikoko katedradunak krisiaren kausak aztertu zituzten, bai halaber haren ondorioak sailkatu, eta herrialde aberatsak eta txiroak, handiak eta txikiak lekuz kanpo utzi dituen finantza-egoera baten ezaugarririk esanguratsuenak ere adierazi zituzten.

4.7.- Hitzaldi-sorta: “Bilbao, Donostia Gasteiz: hiru hiri, 3 dimensiones”



Iazko apirila eta maiatza bitartean Sabino Arana Fundazioak “Bilbao, Donostia y Gasteiz: hiru hiri, 3 dimensiones” izenburu orokorreko hitzaldi-sorta bat antolatu zuen. Protagonistak aipatu hiru euskal hiriburuotako alkateak izan ziren, hau da, Iñaki Azkuna, Odon Elorzak eta Patxi Lazcoz, hurrenez hurren.

Hitzaldi-sorta inauguratu zuena Gasteizko alkate Jn. udalburua,

Patxi Lazcoz, izan zen, apirilaren 29an eman zuen hitzaldiarekin. Haren ondoren Odon Elorzak, maiatzaren 12an, eta Iñaki Azkunak, hile bereko 21ean, jardun zuten.



Lazcozek bere hitzaldian ahaleginak batzera deitu zuen, hiru euskal hiriburuekin “euskal hiria” egitera, hau da, hiri handi bakar bat XXI. mendeko Euskadiren barruan. Horretarako hiru euskal hiriburuen arteko lankidetzak eskatu zuen, “egitismo erkideen bitartez herrialdea egiteko”, eta Bilbo-Gasteiz-Donostia hirukiak “munduko geraleku soil bat besterik ez izateari utzi eta, hiri handien klubean geltoki nagusi bilaka dadila” aldeztu zuen. Ildo horretan, euskal “Y” ere izan zuen hizpide, “aukera bikaina eta erronka handia” denez gero.

Donostiako alkate **Odón Elorzak**, maiatzaren 12an, Donostiaren kultur hiriburu izateko hautagaitza aldeztu zuen, “herritarren arteko kohesioa areagotzeko tresna” denez gero.



Donostiako alkate udalburuak adierazi zuen “egia dela, batu gaitzaketen, herrialdea egituratzen lagun dezaketen elementuak, gertakariak eta helmugak behar ditugula”. “Izan ere, pixka bat bizkar emanda bizi gara”, esan zuen, eta “etorkizuna arlo guztietako lankidetzeta eta elkarren osagarritasuna dira”, erantsi zuen.

Odon Elorzaren irudiko, “urte gehiegi dira zatikatuta, indarkeriarekin, gorrotoarekin bizi”. Eta gure herrialdea ez da inoiz sendoa izango, sekula ez du nazioarteko begirunea bereganatuko, aurreko guztiarekin bukatu ezean”. “Hain zuzen ere, “gure egin dugun printzipioan sinesten dugulako, hain zuzen ere: kulturadun izatea libre izateko, kementsu egiten dugu Donostia-Euskadi 2016 proiektuaren alde”, adierazi du.

Alkate donostiarrak, zera ere adierazi zuen: “Donostiak eta Bilbok, baita beste zenbait hirik ere, Biarritz eta Baionarekin hasi eta Gasteizeraino, elkarren beharra dugu lurraldea indartzeko, foroetan gure presentzia bermatzeko, bazterketarik gabe herritarrei zorian handiagoa helarazteko”.

Azkenik, maiatzaren 21ean, **Iñaki Azkunak** hiriaren eraldakuntza hartu zuen hizpide, begirada “Hiriaren “bigarren” eraldakuntza ekarriko duten etorkizuneko proiektuetan ipinita. Azkunak, hiria eraldatzen jarraitzeko, Aldundiarekin lortutako itunak aldeztu zituen, eta hiru euskal hiriburuen arteko lankidetzaren alde agertu zen, beti ere, “hiri osoak izanda, euren potentzial guztiari uko egin barik”.

Azkunak gaur egun aribidean diren egitasmoez hitz egin zuen, hala nola, Musika Kontserbatorioa, Alondegia, edo Campos antzokia — zein urte bukaeran inauguratuko baita—, Zorrotzaurre, eta beste. Eusko Jaurlaritzari ere konpromisoa galdatu zion, Arte Eszenikoen Zentroa egiteko.

Azkenik, Euskadiko ikusmolde handi bien arteko itun sendo baten alde agertu zen, beharrezkoa, baldin eta Herria egituratu nahi bada. Eta zera erantsi zuen: Une honetan siglatan sakabanatutako abertzale demokratiko guztiak biltzeko ordua da, horrek ahuldu besterik ez baikaitu egin. Nire ahultasunean datza indarra, deiadar egiten zuen San Paulok; indar hori lor daiteke, baldin eta Euskadi nazioa dela, Estatuko beste herri batzuekin arazo barik bizi daitekeen nazioa bat dela, lurra erraietatik maitatuz, ikuskera unibertsala eduki dezakegula uste duten demokrata guztiak biltzen badira”.

4.8.- Mahaingurua: “Bizitza amaitzean, erabakitze eskubiderik?”

Mario Iceta Bilboko Elizbarrutiko gotzain laguntzaileak eta **Luis Montes** mediku anestesista eta Leganesko (Madril) Severo Ochoa Ospitaleko larrialdietako zerbitzuburu ohiak mahainguru batean parte hartu zuten ekainaren 10ean; bertan eutanasiaraz, suizidio lagunduaz, zainketa aringarriez, alde aurreko nahiez eta horrelako gaiekin zerikusia duten zenbait kontuz hitz egin zuten.



Iceta monsinoreak, zein, gainera, Medikuntzan doktorea eta Bioetikan aditua baita, eskatu zuen “gaixoari heriotza nahita eragitea”n ez erortzeko, eta gaixo terminalentzako zainketa aringarriak aldeztu zituen. Zehazki, galdatu zuen medikuntza aringarria espezialitate gisa onar dadila unibertsitateetan, eta gaixo sendaezinak bakarrik zaintzeko zentro gehiago egiteko.

Bilboko Elizbarrutiko Gotzain Laguntzaileak uste du, eutanasia, hau da, “bizia nahita kentzea”, norberak eskatuta bada ere, edo bizibaldintzengatik ere, ez dela erantzuna, inork ere ezin dezakeela besteren biziarekiko eskumenik izan”.

Hala ere, Montes doktorearen aburuz, “despenalizatu egin behar dira eutanasia aktiboa eta beharrezko laguntza”, zeintzuk une honetan zigortu egiten baititu Zigor Kodeko 143. artikulua”, zeren, berak dioen bezala, egoera horretan “herri-adostasun bat da geure erabakitze eskubidea”, zeren “bestela, bizitzea betebeharra baita”.

Montes-en iritziz, Andaluziako Heriotza Duinari buruzko Legea “garrantzitsua da, hain zuzen ere beste urrats eta aurrerapen bat, iluntasun horretatik, osasuneko langileek biziaren iraungitzea bezain gai garrantzitsu batean beti gainean izan dugun ez-legezatasun horretatik, irteten joateko”.

Aditu bien solasaldiak hizlari bien arteko oso debate interesgarri batekin bukatu ziren, mukuru zegoen Euskalduna jauregiko aretoak egindako galdera ugariak eraginda.

4.9.- “BBK: etorkizunerako oinarriak”



Xabier de Irala BBK-ko lehendakariak 2009ko ekainean, Gogoeta eta Elkarrizketarako Mintzagunearen barruan antolatutako hitzaldian, esan zuen, bizkaitar kutzak korporazio-eragiketa “garrantzitsu” bati ekin beharko diola, gerta daitekeen banku-sistema sendotu baten agertokian zazpi edo zortzi erakundeko talde horretan kokatu nahi badu, 75.000 milioi euroko negozio-kopurua eta guztira % 40ko merkatu-kuota izanda. Erakunde horiek estatu eremukoak izango dira: gutxienezko

merkatu-kuota % 4 edo 5koa dutela, eta erkidegoz gaindiko bat egiteen bitartez eratuak, kapital publikoa erabiliz ere izan daitezkeelarik.

Etorkizuneko agertokian, Iralak marraztutako finantza-sistemaren berregituraketaren ostean, aurreikusita dagoena hiruzpalauko talde nagusi bat da, 225.000 milioi euroko

negozio-kopuruarekin, eta gainerakoak, publikoak izan daitezkeen toki-erakundeek osatuko dute.

Orobat, Xabier Iralak adierazi zuen bi direla BBK-k 2009-2010erako dituen erronkak: eraginkortasuna indartzea eta gerta litezkeen korporazio-eragiketak aztertzea, eskala hartzeko.

4.9.- “Euskal udalak: izan ala... izan”



Bestalde, irailaren 16an Jokin Bildarratz EUDELekeo presidentea, Gogoeta eta Elkarrizketarako Mintzagune berean, Udal Legea onetsi beharra galdatu zuen, eta azpimarratu zuen, halaber, beraren helburuetako bat Udal Legea krisi ekonomikoaren aurka borrokatzeko beste tresna bat ere badela frogatzea.

Jokin Bildarratz erabatekoa izan zen, esan zuenean, “beharrezkoa dela Udalak ere euskal bilbe instituzionalean sartzea eskubide eta erantzukizun guztiekin”.

“Autonomia politikoaren printzipioa indartu behar da, udalek geure eskumenak erantzukizunez eta beste gobernu maila batzuen interferentziarik gabe kudeatu ahal ditzagun”, adierazi zuen Eta halaber erantsi, “udalerrak herrialdeko bilbe instituzionalean erabat integratzea lortzeko giltzarria finantza-autonomia dela”.

4.11.- “Krisiak finantza-sisteman eragin dituen ondorioak. BBKren egoera”



Joan den uztailan Bilbao Bizkaia Kutxako (BBK) presidente kargurako hautatua izan ondoren, jendaurrean eman zuen lehenengo hitzaldian, Mario Fernandezek, Fundazioak antolatutako ekitaldi batean (urriak 7) adierazi zuen, euskal banku-erakunde horrek “ez duela beraren kaudimena edo BBK bizkaitar gizarteak kontrolatua izatea arriskuan ipini dezakeen ezein eragiketatan parte hartuko”.

Aipatu finantza-arduradunak, bera entzutera Euskadiko ekonomia, politika, gizarte eta kultura arloetako pertsona nabarmenez betetako entzuleria erakartzea lortu zuelarik, bere solasaldiaren zatirik handiena krisiak finantza-sisteman eragin dituen ondorioak aztertzeko eta testuinguru horretan BBK-k duen egoeran on azaltzeko erabili zuen.

4.12.- “Everest, K2: “Giza ahaleginaren gailur bi”



Juanito Oiarzabal mendizale gasteiztarrek “Everest, K2: dos historias de superación (giza ahaleginaren gailur bi)” aurkeztu zuen. Ekitaldian Munduko mendirik garaienetan izandako

bizipenei eta esperientziei buruzko gogoetak partekatu zituen etorri zirenekin.

Juanitok, oraindik aktiboan egonda oinpean zortzimilakorik gehien, 23 gailur, dituen gizonak, 2001ean oxigeno artifiziala baliatu barik Everest mendiaen gailurrera iritsi zenekoa kontatu zuen, —1993an ere lortua zuen, baina orduko hartan oxigenoaren laguntzarekin—, baita mendian behera, “ukituta, deshidratatuta, erreflexurik gabe”, zetorrela bizi izan zuen egoera zailarena ere.ñ

Beste egoera biziki zail bat gertatu zitzaion 2004an, K2ra berriro igo zuenean. Juanito mundu osoan gailur mitiko horretara bi bider igo duten hiru pertsonetako bat da, nahiz eta onartzen duen: “denboran atzerantz egingo banu, orain ez nuke hori egingo”.

4.13.- Hitzaldi-sorta: “Norantz doa Afrika?”



Sabino Arana Fundazioak, 2007an egin zen “*Afrika. Bakea, adiskidetzeta eta demokrazia*” hitzaldi-sortaren jarraipen gisa, beste hitzaldi-sorta bat eta mintegi bat antolatu zituen “*Norantz doa Afrika?*” izenburupean. Hitzaldiotan, besteak beste, erreformak egin beharraz, ustelkeriaren aurkako politikez eta Kontinenteko txirotasunaren aurkako borrokaz hitz egin zen.



Oraingoan **Boitshoko Mokgathe** Afrikako Batasunaren Sudaneko Bitartekaritza Bulegoko Gai Politikoetarako arduradunak eta **Jean Lokenga** Adinez Txikien Babeserako zuzendari (UNICEF-Benin) eta Nazioarteko Pax Romanako presidente ohiak hitz egin zuten. Haien mintzagaiak “Botswana: demokrazia Afrikan” eta “Kongoko Errepublika Demokratikoa, gatazkaren biharamuna” izan ziren, hurrenez hurren.

5.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA – ARCHIVO DEL NACIONALISMO

I.- AGIRITEGIKO ENPLEGATUAK

Langile finkoak / bakoitzaren zereginak:

Eduardo Jauregi, koordinatzailea: ikertzaileak, kontsultak, adminis., artxiboa, web, informatika

Luis de Guezala, teknikaria: hemeroteka, argitalpenen kontrola, prestakuntza, artikuluak...

Iñaki Goiogana, teknikaria: agiritegia, ikertzaileekiko arreta, kontsultak eta unean uneko lanak.

Itziar Mendieta, laguntzailea: bibliotekako eta hemerotekako erregistroa, itzulpenak, gutunak, fotokopiak

Bekadunak:

Alaitz Villate: Fundazioaren web orria (urtebete, otsailaren azkenera arte, Bilbon)

Marta García: web orria (4 hilabete, martxotik ekainaren azkenera arte, Bilbon).

Patricia Juez: Hemerotekako argitalpen serializatuak (urtebete, azaroaren 16ra arte, Artean).

Leyre Pinedo: Ebakuatuen eta erbesteratuen datu-basea (5 hilabete, apiriletik abuztura, Artean).

Sylvia Student: Ebakuatuen eta erbesteratuen datu-basea (3 hilabete, urriaren 29tik, Artean).

II.- AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAKA (ARTEA)

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

- Bizkai Buru Batzarrari / BBB (1979 -2000) dagokion dokumentazioa instalatu eta antolatu: 500etik gora zorro sailkatzaile, 50 metro linealean. Funts honen atal nagusiak honako hauek dira: lurralde-batzarrak, aktak eta BBBren deskarguak, idazkaritza, posta-trukea, hauteskundeak eta beste zenbait.

- Mikel Isasiren artxibo partikularra sailkatzen, antolatzen eta deskribatzen hasi da.

- Urte osoan jasotako partikularren berrogeita hamar bat dohaintzen banan-banako inbentarioen idazketa. Inbentarioetan deskribapenak dokumentazio motaren arabera sailkatu eta antolatzen dira: Artxiboko agiriak, Bibliotekakok, Hemerotekakoak, edo Ikus-entzunezko Materiala.

- Dohaintzak “Dohaintza-emaileak” eta “Funtsak” datu-baseetan erregistratu.

- “Euskal ebakuazioa eta emigrazioa, 1937 – 1940” datu-basea sortu; 16.000tik gora fitxak osatzen dute.

- *Euzkadiko Jaurlaritza (EJ)* funtsa Irargira (Bergara) eramateko prestalanak.

B) BILBIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2009/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **36.206** izan dira. Urtebete horretan beste 250 ale erregistratu dira, hala datu-basean (deskripzioa), nola fisikoki apalean ipinita.

Liburutegian dauden metro lineal kopuru berean liburuki gehiago erantsi ahal izateko lan hori, aldez aurretik beste obra batzuk atereaz egin ahal da, Urruneko Gordailura (Manu Egileor eraikinean) eramanez, hain zuzen, beste liburu batzuek har dezaten haien lekua. Liburutegiko apaletatik ateratzen diren obrak ale errepikatuak izaten dira, eta modernoak; baina kokalekuz aldatzen dira bakarrik, ezen lehen bezala eusten zaie bakoitzaren deskripzioei eta jatorriei.

C) "UZTURRE" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2009an lehen ez zeuden beste **152** izenburu gehitu zaizkio Hemerotekari. Une honetara arte "Uzturre" Hemerotekak dagoeneko **6.209** izenburu desberdin dauzka, guztira 152.000 ale direlarik.

Hemerotekan urte honetan egindako lanetako bat, Patricia Juez bekadunak burutua, dohaintzen bidez eta erosita eskuratutako argitalpen serializatuen erregistroez gain, zenbait aldizkaritan argitaratutako artikulu informazio historikodunen datu-basea ehunka fitxa berriekin joritzea izan da; aldizkari horietako batzuk dira, besteak beste: "Revista de Historia Contemporánea", "*Hermes* Pentsamendu eta Historia Aldizkaria", edo "Sancho el Sabio" Fundazioaren aldizkaria. Gaur egun datu-base horretan **4.800** erregistro baino gehiago daude.

D) AGIRRE LEHENDAKARIARI BURUZKO WEB ORRIA

Agirre lehendakariari buruzko web orri berria 2010eko otsailaren azken aldera irekiko da, eta berori sortzeko, Abertzaletasunaren Agiritegiak gestioak egiten jardun izan du —eskusiboki zenbait hilean— Europako eta Amerikako hainbat herrialdetako instituzioekin, Jose Antonio Agirreri buruzko materialak bilatu eta aurkitzeko; diseinuaren

eta programazioaren / web bera sortzearen koordinazioaren ardura hartu da. Bai halaber: Agirreren beraren testu eta esaldi adierazgarriak aurkitzea eta hautapena egitea; haren bizitzako unerik esanguratsuenak idaztea; kazeta-artikuluak bilatzea aldizkarietan eta egunkarietan; web datu-basea hornitzea, irudiak, deskribapenak, bideoak eta audioak kargatuz, testuak zuzenduz etab.

III.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

- Kontsultak: Abertzaletasunaren Agiritegian **213** informazio-eskaera jaso dira 2009an, postaz, posta elektronikoz, faxez nahiz aurrez aurre. 1992ko urritik egin diren kontsultak guztira 3.362 izan dira.

- Prestakuntza: Eduardo Jauregik egin duen ikastaroa Kalitateaz, ISO Arauez eta Kudeaketaren eta artxiboen adierazleez . Madril, 2009ko otsailaren 13-14.

- Lankidetzak: Luis de Guezalak Gerra Zibilari buruzko (Santoñako Ituna...) telebista-solasaldi batean parte hartu zuen Tele7. Barakaldo, 2009ko apirilaren 16an.

- Lankidetzak: Iñaki Goioanak Erbestaldiari buruzko Mintegi batean parte hartu zuen. Donostia, 2009ko uztailaren 20 eta 21ean.

- Editoriala: Felipe Egigurenen Oroitzapenak (Ondarroa), eta Labayru Ikastegiarekiko lankidetzarekin jarraitu da, Alberto Onaindiaren 1936-45 agiri-iturriak argitaratzea xede.

- DEI Arako artikuluak (historikoak, efemerideak)

IV.- PARTIKULARREN DOHAINZAK (1330 kutxaraino)

Artxibo-materialetan 2009/12/31 bitartean izan ditugun dohaintza-emaileak 1.295 izan dira. Urte horretan **51** pertsonak lagundu zioten Abertzaletasunaren Agiritegiari, dohaintzak eginez. Kopuru horretatik 21 dohaintza-emaile berriak izan ziren

Agiritegiaren dohaintza-emaileak 2009an honako hauek izan dira:

Dohaintza-emailea	Hasiera-eguna (ee-hh-uu)	Azken eguna (ee-hh-uu)
MAIATZEKO PLAZAKO AMONAK	30/01/2000	31/01/2009
AJURIAGOGEASKOA, AKETZA	04/08/2009	04/08/2009
ALCOVERRO, JOSEFINA	22/10/2009	22/10/2009
ARANA RÓN, FÉLIX	19/11/2009	19/11/2009
ARCELUS, AMALE	09/12/1998	15/04/2009
ARRILLAGA ALDAMA, LUIS	20/05/2009	20/05/2009
ARTETXE, AURELIO	01/09/1992	02/02/2009
AYO ARROITA, JOSE RAUL	08/07/2009	08/07/2009
BALANZATEGI, AURORA	09/04/2002	19/02/2009
BARRUTIA, WENCESLAO	07/05/2001	12/03/2009
BILBAO ARIÑO, CARMEN	12/11/2009	12/11/2009
CIARRA IRURITA, ALEJANDRO	19/10/2007	02/10/2009
DONAZAR, MIKEL	20/12/2007	05/02/2009
ESTÉVEZ DE LA TORRE, JUAN RAMÓN	04/02/2009	04/02/2009
GAINTZA, LUIS ANGEL	10/10/1996	17/12/2009
EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA	19/02/2009	19/02/2009
GOIKOETXETA, IÑAKI	15/7/1996	11/06/2009
GOIRI, JAVIER DE	01/10/2001	14/10/2009
IBARRETXE MARKUARTU, JUAN JOSÉ	31/03/2004	29/10/2009
JENNIFER PATERMAN-HARRISON	01/10/2009	01/10/2009
LASANTA VERDE, MARÍA LUISA	27/08/2009	27/08/2009
LEGARRETA, JOSU	01/11/1992	25/03/2009
LEIZAOLA, JOSEBA	17/12/2009	17/12/2009
MAIZ URRETAGOiena, SENDIA	18/02/2009	18/02/2009
MARTÍN GAMO, JAVIER	04/11/2009	25/11/2009
MARTÍN, ELENA	9/2/2000	15/12/2009
MARTÍNEZ CRESPO, XURXO	16/02/2004	10/03/2009
MILIKUA DE INTZA, FELIXA	27/11/1996	28/10/2009

MIRANDA LARREA, PATXI	03/07/2009	03/07/2009
MORENO TORRES, JOSÉ	09/01/1998	08/05/2009
NAFARRATE MENDIA, ALAZNE	04/11/2009	04/11/2009
PETRALANDA, MIREN	09/02/1998	17/12/2009
PRESILLA, AMAIA	20/1/1995	15/12/2009
PURROY BELZUNCE, RAFAEL	14/11/1997	15/12/2009
QUEVEDO MEZO, JAVIER	20/2/1998	11/11/2009
QUINTANA ZORRILLA, MARÍA BEGOÑA	08/05/2009	08/05/2009
RETOLAZA, UXUNE	30/7/1999	27/5/2009
SAN MARTÍN BADIOLA, TXOMIN	06/10/2009	06/10/2009
SAN SEBASTIÁN, KOLDO	16/06/1995	30/12/2009
SANTURTZI, EAJ-PNVren UBB	18/09/1996	11/09/2009
URIBE GARABIETA, TXEMA	29/05/2009	29/05/2009
VERDES ROLA, JOSEBA	15/12/1996	22/12/2009
ZARRAOA BURUAGA, MARÍA LUISA	15/06/2009	27/11/2009
ZIGORRAGA, AGURTZANE	01/12/2009	01/12/2009
ZUBIRI CEARRA, SABIN	30/12/2009	30/12/2009

V.- IKERTZAILEAK

Gure agiri-funtsak 2009an **31** ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan: Honako hauek izan dira izen-deiturak eta ikerlanak:

Deiturak	Izena	Ikerlana
AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA	JOSEBA	SABINO ARANA ETA EUSKARA
AIZPURU JOARISTI	ALAITZ	EXISTENTZIALISMOAK EUSKAL ABERTZALETASUNA SUSPERTZEKO IZANDAKO ERAGINA
ANASAGASTI OLABEAGA	MAITENA	MEXIKOKO ETA BUENOS AIRESKO EUZKO DEYA
ANDERSON	PETER	GERRA EPAIKETA FRANKISTAK
ANDRÉS IRAZOLA	AGUSTÍN	EUSKALDUNAK KOLONBIAN
CALTZAKORTA ERORTA	XABIER	“EUZKADI”REN ALEA
CÓRDOBA QUINTANA	PEDRO	EUSKADI 1930 / 1937: DONOSTIAKO ETA SANTOÑAKO ITUNAK
ELKOROBEREZIBAR LARRAÑAGA	MIGUEL ÁNGEL	SERAFIN ESNAOLA: ERAKUSKETA ETA LEKUKOTASUNEN LIBURUA
ETXEARRIA MAGUREGI	SABIN	ZORNOTZA
FORASTER ASPE	LOURDES	ERBESTALDIA (euskaldunen Mexikon)
GENIOLA	ANDREA	PERIFERIAKO ABERTZALETASUNAK
IBARBIA ALTUNA	BEÑAT	ALSINA ITSASONTZIA
INCHAUSPE LÓPEZ	JOSÉ RAMÓN	GERRA ZIBILA ARETXABALETAN
IRUSTA	ALFREDO	GALDUAK, HILDAKOAK ETA KONTZENTRAZIO ESPARRUAK
LAMIKIZ JAUREGIONDO	AMAIA	KULTUR ELKARTEAK GIPUZKOAN, BATZOKIEN ARKITEKTURA
LARRINAGA LARRABEITI	IÑAKI	MUNGIAKO BATZOKIA
LUENGO TEIXIDOR	FÉLIX	EAJREN ETA PCren ARTEKO KONTAKTUAK 40ko HAMARKADAN
MORALES SANTOS	ANGEL	MATEO SANTOS CANTEROren BIOGRAFIA BERRERAIKITZEN
OLAZABAL ESTECHA	CARLOS	SANTOÑAKO ITUNA ETA BERE AURREKARIAK

PALMA FERNÁNDEZ	FRANCISCO	GERRAKO INDUSTRIAK (GERRA ZIBILA)
PAULO	HELOISA	ERBESTERATU ERREPUBLIKANO PORTUGALDARREN ETA ESPAINIAKO ERREPUBLIKAREN ARTEKO HARREMANAK
PERENNON URREIZTIETA	RONAN IKER	LEZO DE URREIZTIETA
PÉREZ	MARCO	LUIS ARANA GOIRI
RAMOS LÓPEZ DEL PRADO	ÁNGEL	GAZTE ABERTZALEEN ELKARTEAK ERBESTEAN, DIKTADURA FRANKISTAREN SASOIAN
ROMERO PÉREZ	FERNANDO	PROPAGANDA KANPAINAK 1946, 1966, 1976 ETA 1978ko ERREFERENDUMETAN.
RUIZ DESCAMPS	NICOLÁS	EUZKO GAZTEDIJA (Juventud Vasca)
SAN FELIPE ADÁN	MARÍA ANTONIA	ELIZA – ESTATUA HARREMANAK
SANZ GOIKOETXEA	ENEKO	EUSKAL ORDEZKARITZAK
STUDENT	SYLVIA	SABINO ARANA ETA EUSKAL ABERTZALETASUNA
URIBE ORMAECHEA	JUAN	RAFAEL URIBE URIARTE ETA SABINO ARANAREN ARTEKO POSTA-TRUKEA
URKIZA TXAKARTEGI	JULEN	AUGUSTIN ZUBIKARAIEN GERRA AURREKO LANAK

6.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA



1.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den 2009ko ekitaldian Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak ahalegin berezia egin du bere funtsak Manu Egileor eraikinen berrinstalatzeko, han bildu baitugu museo-material guztia. Ildo horretan, gure funtsen zati handi bat, eta dohaintzen ondorioz erantsi zaizkien berriak, antolatzen dihardugu.

Hurrengo hauen inbentario exhaustiboa egin dugu:

- Ehungintzako funtsa: inbentario berria egiten jarraitu dugu, pieza batzuk berrinstalatzeko eta eskuratutako berrien inbentarioa eginez.
- Argazki-artxiboa: argazki digitalen artxiboko lau milatik gora irudi erregistratu eta katalogatu ditugu, eta geure zigilua txertatu.
 - Partikularren dohaintzetako milatik gora positibo erregistratu eta katalogatu, geure zigilua txertatzeaz gain.
 - Erregistraturiko irudien deskribapen fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
 - Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
 - Irudiak indexatu, bakoitza bere testu-fitxan.
 - Argazki-albumetan instalatu dira euskarri egokietan, tamainaren, artapen-egoeraren, eta abarren arabera, ph neutroko tamaina desberdinetako gutunazaletan ipinita, bakoitza dagokion irudiari egokitua. Aldi berean, inbentario paralelo bat egin da, eta hor errepikatutako irudiak deskribatzen dira, behin erregistratutakoan, bakoitzeko hiru ale.
- Eranskailuen bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten gara, idazpen berriekin eta, aldi berean, material errepikatuaren erregistro paraleloa ere gertatzen.
- Horma-irudien bilduma: bilduma honen inbentarioa egiten gara, idazpen berriekin, eta irudiak atzematen ere ari gara argazki digitalen bitartez.
- Sakelako egutegiaren bilduma: 450etik gora erregistro. Material errepikatuaren erregistro paralelo bat gertatzen ari gara, eta bakoitza bereizmen handiz digitalizatzen.

- Txartelen bilduma: 50 idazpen baino gehiago deskribatu ditugu, eta digitalizatu.

Lan horiek egin beharri atxikita, deskribatu berri ditugun inbentarioen gaineko 140 kontsulta baino gehiago egitea ekarri du.

Atal honetan, esan behar da, gure eranskailu, egutegi, horma-irudi eta txartel bildumak ugaritzen joan direla, bildumazaleek egindako ekarpenen bitartez, haiek gure dohaintza-emaileen zerrenda ugaria are luzeago eta joriagoa egin dutelarik.

Museoak 2009an dohaintza kopuru handia jaso du; orain haien inbentarioa egiten eta, gordailuetan, dagozkien euskarrietan, instalatzen ari gara. Material garrantzitsu asko berreskuratzea lortu dugu, gure pinakoteka, funts higigarriak, argazki-artxiboa etab., jaoritzuz. Edo Zumaiako Jon Gutiérrez Irigoienen bildumarena bezalako dohaintza, zeinetan hark zenbait garaitako janzkiak eta gauzakiak eman baitizkigu baitizkigu, hala nola: gerra karlistak, Kuba eta Filipinetako gerrak, euskal abertzaletasunaren hasiera-garaiak, 2. Errepublika, 1936ko gerra eta 2. Mundu Gerra; edo honako hauena: Jose Antonio Agirre Lekuberen jaraunsleena —Agirre lehendakariarena izandako materiala—, eta Sabin Zubiri Cearra, Peru Ajuria, Ángel Gainza, Joseba Verdes, Aurora Balanzategiren sendia, Jaime Domínguez Macayarenak, gure defentsa arloko, arte grafikoetako eta argazki-artxiboetako funtsetara ekarpen garrantzitsuak egin dituztelarik.



Beste alde batetik, erakusketa ibiltariei dagokienez, nabarmendu behar da ezen, gure erakusketa batzuk 2009an udalerrri askotan ikusi ahal izan direla. Ibiltaritasun handi horren gakoa, arloko aditu zenbaitek emandako hitzaldiak eta tailer didaktikoak izan dira, bisitaria, behatzera zihoan une historikoa, testuinguruan ipintzeko balio izan baitute.

Manu Egileor Aretoan egiten direnaldi baterako erakusketei dagokienez, 2008an Museoa orain dela urte hiru hasi genuen politikari jarraitzen zaio, alegia: urte osoan erakusketa bat edukitzea aukeratu genuen, ikastetxeetako curriculum-proiektuei estaldura hobea eman ahal izateko, erakusketa-eremuaren barruan ematen diren tailer didaktikoen laguntzarekin.

“Manu Egileor” erakustaretoan “10 talaia 1936ko gerrarako” izenburudun erakusketa ikusi ahal izan da, Bilboko Euskal Museoarekin elkarlanean, erakunde horrek materiala utzi digularik erakusgai ipintzeko.

Ikastetxeek harrera ona egin diote gure proposamen berriari, ingurune horren barruan egindako ahozko tailer didaktikoez hizlariak kontaktzen dituzten gertaeren garaitik hurbilago sentiarazten baitituzte gazteak.

Erakusketa horrek jakin-min handia sortu du gure bisitari askorengan, eta, ukitzen duen gaiagatik, beste erakusketa batzuen bitartez iritsi ez garen ikastetxe zenbait interesa daitezen lortu dugu.

Ekitaldi honetan, 2009an, finkatu egin dira Museora egiten diren bisitak. Horenbestez, ikasturte osoan bisitari nagusiak zenbait ikastetxetako ikasleak izan dira, eta sarritan horren bultzatzaile izan direla esan behar dugu: ematen ari garen ahozko historia-tailerrak, eta Museoa “Bizkaitik Bizkaira” programan parte hartzea.

Gure eskaintza didaktikoaren oinarriak dira:

1. Tailer-bisitak, Lehen Hezkuntzara (7-12 urte) zuzenduak, eta maila bitan banatuta: lehenengoa, “Sortu zeure bandera” izenburukoa, 7-9 urteko ikasleentzat, eta bigarrena, “historia osatzen” izenburukoa, 10-12 urteko ikasleentzat.

Lehenengoan informazio-karpetak banatzen dira, eta haietan zenbait banderari buruzko informazioa eta ikasleek bakoitzak bere bandera egin ahal izateko materiala egoten da.



Bigarrenean, behin erakusketa iraunkorraren bisita amaitutakoan eta bertan erakusgai dauden eta gure historiaren zenbait gertaera azaltzen duten objektu batzuen gaineko informazioa jaso ondoren, eskola-umeek objektu horiek osatu beharko dituzte bertan emango zaizkien puzzleetan..

Udako hileetan pertsona eta talde askoren bisitak izan ditugu; horietako gehienek jatorri-herrialdeak Katalunia, Mallorca, Iparraldea, Galizia, Irlanda, Amerika, Argentina, Ingalaterra, etab. izan dira.

Historia-tailerrek 12 eta 18 urte bitarteko gazteen eta, Euskadiren historiako hainbat gertaera, zuzenean bizi zituzten pertsonen arteko topaketak bideratzen laguntzen dute. Horren guztiaren osagarritzat, bideo-emanaldiak ere izango dira eta neska-mutilek protagonistei galderak egin ahalko dizkiete hizpide den sasoiak eta haiek bertan bete zuten eginkizunaz.

Euskal Abertzaletasunaren Museotik igarotzen diren gonbidatuak hainbat gaiez mintzatzen dira, hots: Gerra Zibila, espetxean izandako bizipenak, gudarien batailoien eginkizuna, trantsizioa, euskal kultur produkzioa, diaspora, ikurrinaren legezkatzea, etab.

Tailer horiek Museoak Manu Egileor aldi baterako erakusketen Aretorako programatzen dituen aldi baterako erakusketetan kokatzen dira.

Bisita tailer hau Museoan dagoen erakusketa iraunkorraren barruan dago.

Martxoan, maiatzean eta azaroan bisitari kopuru handia jaso dugu, horiek ere ahozko historiako tailerrek eraginda, EHUko Esperientziaren Gelako zenbait ikasle ere izan zirelarik bertan.



Urte osoan guztira 5.720 pertsona jaso ditugu.

Urtarrila, martxoa, maiatza eta azaroa izan ziren talderik gehien etorri ziren hileak. Baita kontuan izan behar dugu ere, Euskadiko bazter guztietan gure aldi baterako erakusketak ikusten izan diren pertsona horiek guztiak zenbatu gabe daudela, eta ez direla sartu Museoaren bisitari kopuru osoaren barruan.

1.2.- KONTSULTAK, LANKIDETZAK ETA MAILEGUAK

Kontsulta-eguna	Izena	Erakundea	Gaia
2009/01/13	Etxeberria Uranga,	Gipuzkoako Aldundia	Irudiak:Leizaola, Agirre, Garaikoetxea...
2009/01/16	Dolosor, Franck.	Elkar	Argitaratuko duen libururako irudiak:* Aberri eguna 1932 Donostian (Agirre, Monzon eta Matxin, Senpereko bertsolaria. Jean Irabola), * Sutea Irunen 1936an * Gerra Euskadin* Nazien okupazioa Iparraldean (Hitler eta Franco Hendaian 1940/10/23)*XX. mendearen hasierak Iparraldean
2009/01/20	Alberdi, Raimundo	Norbanakoa	Argazkiak, liburuak Azkoitia
2009/01/20	Guinea, Leire	Editorial Edebe	Frankismoaren irudiak 1979-1980, Burgoseko epaiketako manifestazioak 1970an, Carrero Blancori egindako atentatua, 1979ko Estatutua, Sabino Aranaren argazkia Saturrarango

			espetxean.
2009/01/22	Etxezarraga, Karlos	Begoñako Batzokia	"Gogoan"en facebook-erako irudiak
2009/01/23	Barcenilla, Mercedes	Ed. Santillana Educación S.L.	Irudiak: Juan Francisco Petrirena, Indalecio Bizkarrondo, Jose Elizegi, Pedro Mari Otaño,...
2009/01/26	López Martínez, Olga	Norbanakoa	"Espetxean" liburua eskatu; Daniel López del Río en eta Valentin García en datuak
2009/02/04	Urriaga, Zigor	Ibarrangelu, J.M	Euskal giroaren irudiak
2009/02/05	Arevalo, Enrique	Norbanakoa	Rufino Arevalo Serranoren datuak. UGTren Jean Jaures batailoiko tenientea eta Solluben zauritua.
2009/02/05	Lauzirika, Miren	Baleuko	Irudiak: emakumeak lanean, Emakunderentzat bideo bat egiteko
2009/02/07	Muñoz, Ángeles	Norbanako	Mathieu Corman eta 10 talaia erakusketaren foiletoa.
2009/02/12	Garai Bengoa, Juan	"Intxorta 1937"	Itxarkundia batailoien irudiak, erakusketa baterako
2009/02/13	Atxega, Nerea	Ibaizabal argitaletxea	Gobernuaren edo 1. gobernuaren erbesteko irudiak, Batxilergoko 2. mailako historia-

			libururako; Frankismoa Euskal Herrian unitatea.
2009/02/16	Alberdi, Raimundo	Azpeitia Uri Buru Batzarra	Loiola batailoiaren argazkiak.
2009/02/18	Sanz, Eneko	Norbanakoa	Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien irudiak, Eusko Jaurlaritzak agindutako liburu baterako
2009/02/20	Olazabal, Carlos	Norbanakoa	Gerra Zibilaren Euskadiko argazkiak
2009/02/25	Olivares, Rosa	BBK Fundazioa	Bilboko antzinako hotelen eta jatetxeen argazkiak, gida historiko bat egiteko
2009/02/26	Miren	FEVA	Armarri eta banderei buruzko web orrien gaineko informazio- eskaera
2009/02/21	Intxauspe, José Ramón	Intxorta 1937 Kultur Elkartea	"Gerra Zibila Aretxabaleta" liburua argitaratzeko irudiak, Eusko Jaurlaritzaren Beka
2009/03/05	Guzmán, Tomas	Norbanakoa	Irudiak: Ramón de la Sota Aburto, Manuel de la Sota Aburto eta Alejandro de la Sota Aburto
2009/03/06	Olazabal, Carlos	Fundación Popular de Estudios Vascos	Julio Jauregiren irudia
2009/03/10	Lourdes (Fray Juan de		Doroteo Renom

	Zumarraga institutuko andereñoa)		Arrazolaren datuak.
2009/03/25	Guzmán, Tomas.	Norbanakoa	Argazkiak: Maria, Lola, Luisa, Mercedes, Begoña, Ángeles, José Maria, Maria Teresa de la Sota Aburto, José Maria Olabarri Massino, José Maria Escuza Olabarri, Isabel Escuza Olabarri eta Magdalena Massino Lera
2009/03/11	Martín del Barrio,	Fundación Pablo Iglesias	EAJren 1977ko horma-irudia
2009/04/01	Productora Batabat		Biarritz - Bilbo hegaldia egiten ari zen Air Pyrinees konpainiako (Euzkadiko Jaurlaritza) hegazkinaren erasketari (1937/05/26) buruzko ahozko lekukotasunak.
2009/04/01	Elkoroberezibar, Miguel Ángel	Norbanakoa	Serafín Esnaolaren dokumentuak, argazkiak, gauzakiak, lekukotasunen eta argazkien liburu baterako
2009/03/07	Saiz Castilla, Félix.	Norbanakoa	Datuak: Félix Saiz Núñez, Larrazabal batailoiko gudaria, Santoñako eta Malagako espetxeetan egon

			zen.
2009/04/10	C. ARREGI, Ricardo	Norbanakoa	Datuak: José Luís Arregui Churruca Rusia batailoiko gudaria; El Dueso espetxean egon zen, eta Larrañaga komandantearekin egon zen.
2009/04/20	Olivares, Rosa	BBK	Argazkiak: George Steer
2009/04/21	Redondo, Maite	DEIA	Gernikako bonbardaketaren argazkiak eta George Steer-i buruzko informazioa.
2009/04/22	Familia Lezo de Urreiztieta	Norbanakoa	Lezo de Urreiztieta argazkiak.
2009/04/23	Unzueta, Humberto	DEIA	Carlos Garaikoetxearen zin egitearen irudiak, 1980-1984
2009/04/27	Unzueta, Humberto	DEIA	Leizaolaren zin egitearen irudiak, Agirrerren hilobiaren aurrean dagoela.
2009/05/20	Martínez Xurxo	Confederación intersindical galega	Nortasun Agiriko argazkia eta euskaldunen argazkiak Venezuelan 1940 eta 1949 bitartean
2009/05/25	Gutierrez, Jon.	Norbanakoa	Primitivo Abaden irudiak
2009/05/29	Arroyo, Amaia	Ikastolen Elkarte	Jose Antonio Agirrerren irudia
2009/05/28	Vazquez, Roland	Norbanakoa	Gerrako irudiak, zenbait argitalpenetan agertutakoak

2009/06/06	Landa Gesta, José Luís.	Norbanakoa	Ekuatore Gineari buruzko irudi-eskaera
2009/06/16	Ruiz, Xabier	Norbanakoa	Gudariaren irudia Gernikako Arbolaren aurrean dagoela
2009/06/16	Elkoroberecibar, Miguel Ángel		Serafín Esnaolaren irudia, 1984ko Alderdi Egunean meza ospatzen ari zela.
2009/06/16	Urrutxua, Eneritz	Norbanakoa	Gernikaren argazkiak, bonbardaketa orduko eta ostean
2009/06/17	Elkoro, Miguel	Norbanakoa	Serafín Esnaolaren irudiak, beste Alderdi Egun batean
2009/06/15	Egiguren Iriondo, Jose Agustin	Norbanakoa	Ondarroako irudiak
2009/06/02	C. Arregui, Ricardo.	Norbanakoa	Larrañaga batailoiko gudarien zerrenda
2009/06/18	Elorza, Idoia	GBB	Oñatiko batzokiaren inaugurazioaren data.Oñatiko argazkiak eta gauzakiak
2009/06/19	Alvarez (Sestao)	Norbanakoa	Datuak: Miguel Alvarez Barragan
2009/06/25	Vazquez, Roldán	Norbanakoa	La Galea egunkariaren irudia, ikatz-ziriz egindako izenburua
2009/06/30	Andraka, Unai	EAJ-PNV	Gudariaren argazkia, Gorbeiaiko gurutzepean

2009/07/01	Prego, Luis Mari	EAJ-PNV	Gorbeia Gurutzearen irudiak
2009/07/02	Camino, Iñigo	EAJ-PNV	Irudiak: Agirre, Prieto, Manuel Irujo
2009/07/01	Jimenez, Ignacio	Norbanakoa	Alejandro Idoeta Antxustegi gudariaren datuak
2009/06/02	Goñi, Karmel	Norbanakoa	Apaizen irudia Carmona
2009/07/03	Cornet, Anna	El periódico de Catalunya	Apaizen argazkia
2009/07/07	Urkiza , Begoña.	Palacio Euskalduna	Leizaola, Lizardi... erakusketako foiletoa
2009/07/09	Ana Ajuria	Norbanakoa	Melkiades Basagoitia Bizkarraren datuak
2009/07/09	Bilbao, Javier	Norbanakoa	Juan Bautista Bilbao Etxebarriaren datuak; Ariztimuño batailoiko gudaria.
2009/07/09	Billalabetia, Naiara	Norbanakoa	Fidel Billalabeitiari buruzko datuak.
2009/07/10	Sección sociedad	Noticias de Gipuzkoa	Apaizen argazkiak Carmonan
2009/07/13	Camino, Iñigo	EAJ-PNV	Alonsotegiko Aldana tabernak jasandako atentatuaren irudiak
2009/07/12		BERRIA	Agirre lehendakariaren irudiak
2009/07/15	Orokoz, Pilar	ZABALKETA	Euskal

		ALKARTEA	emigrazioen irudiak
2009/07/16	Camino, Iñigo	EAJ-PNV	Irudiak: Onaindia, Mujica eta Goma
2009/07/16	Landa Gesta, Jose Luis.		Ekuatore Gineako irudien eskaera.
2009/07/23	Martinez, Xurxo	Norbanakoa	Venezuelako pasaporte baten irudia
2009/07/20	Lamikiz, Amaia	Norbanakoa	Batzokietako irudiak
2009/07/21	Oleaga, Mainer	Moztu filmak	Umeen irudiak gerran eta gerra zibilean
2009/07/15	Bustindui, Kepa.	Norbanakoa	Argazki-eskaera: Confederación euzkadiana eta Euzko Abendaren Ereserkia (euskaraz eta gaztelaniaz)
2009/07/16	Valiente Ortiz, Manuel.	Norbanakoa	Euskal Abertzaletasunaren Museoaren foiletoren eskariak
2009/07/28	Merinero Sierra, M ^a Asunción	Ramón Rubial Fundazioa	Irudiak: Lehenengo Eusko Jaurlaritza, 1936, eta Euskadiko Kontseilari Nagusia, 1978-1979,
2009/07/28	Cortacans, Oriol	Batabat ekoiztetxea	Alfredo Espinosa sailburuaren irudia, "Espias de Franco" filmerako
2009/07/30	Oleaga, Mainer	Moztu filmak	Ume errefuxiatuen irudiak "Amaren ideia" izenburuko dokumentalerako
2009/07/30	Arantza Landa	Norbanakoa	Cristina Landeta Orozkoko erizainaren

			argazkiak
2009/08/25	Elorriaga, Ziortza.	Norbanakoa	Pascasio Etxezarragaren datuak.
2009/08/05	Aranburu Agirre, Juan Luis	Lekaio Kultur Elkarte	Jantzi-eskaria Lauaxetari buruzko lan bat antzezteko
2009/08/13	Gibert i Artze, Joan	Norbanakoa	on linezko material-eskaria Museoaren dendari
2009/09/04	Bruguera Batalla, Rafel.	Norbanakoa	Gurs-eko esparruaren irudia, Gerra Zibilari eta L'Escala nire herriko mugimendu anarkistari buruzko lan baterako
2009/09/14	Alvarez Aranburu, Gorka,	Norbanakoa	Museo-materiala eskatu: 1931..
2009/09/14	Iriondo Bilbao, Mikel	Norbanakoa	Zornotzako batzokiari buruzko prentsa- artikuluen argazkiak
2009/09/23	Garay, Miren	Gernika Lumo Buru Batzarra	Gernikako Arbolaren aurreko mutilaren argazkia
2009/09/23	Esteller Miranda, José Luis.	Norbanakoa	Abertzaletasunari buruzko liburuak
2009/09/15	Madariaga Uribe, Miren Nekane	Bizkaiko Foru Artxiboa	"Libe" libretoaren azalaren argazkia
2009/09/24	Laka, Ruiz	Mamarigako batzokia	Irudiak: Sabino, Agirre eta Euskadiko mapa
2009/09/24	Uriarte, Jose	DEIA	Agirrerren irudia, artikulu baterako
2009/09/10	García Balerdi, Iñaki	Norbanakoa	Museoaren irudiak,

			publizitate-foileto baterako
2009/09/25		Arabako Batzar Nagusiak	Agirrereren irudia
2009/08/19	García M ^a José	Norbanakoa	EABren zutoihalaren eta banderaren argazkia.
2009/10/02	Eider Jauregi	EGI	Munduko gatazken argazkiak
2009/10/02	Prendergast, Miren	Norbanakoa	on linezko material-eskaera Museoaren dendari
2009/09/30	Agirre, Marisa	Amorebietako batzokia	Amorebietako batzokiaren antzinako argazkiak
2009/09/30	Gorrotxategi, Paco	Asociación Gasteo	Antzinako irudiak eskatu
2009/10/08	Pérez y Pérez, Federico	Norbanakoa	Sabino Aranaren irudiak
2009/10/08	Garay, Miren	Nueva Europa S.L.	Agirrereren irudiak, Gernikan zin egiten ari zela
2009/10/10	Fernández Monasterio, Miren Karmele..	Norbanakoa	Datuak: Marcelino Monasterio Anduiza. (Bermeoko alkatea 1930).
2009/10/15	Gorrotxategi, Josemi.	Errepresaliatuak elkarte	Irudiak: Agirre eta bere sailburuak
2009/10/14	Arjuna, Azahara	EITB	30eko urteetako Gernikako Estatutuaren irudiak
2009/10/16	Mendialdua, Ester	Eusko Legebiltzarra	1980ko martxoaren 30eko irudiak Eusko Legebiltzarra eta Autonomia

			Estatutua izenpetzean
2009/10/17	Calvo Barbero, Adrián	Norbanakoa	on linezko material-eskaera Museoaren dendari
2009/10/19	Jauregi, Eider	Bilboko Udala	Bilboren irudiak, antzinakoak
2009/10/21	Oteiza, Beñat	Ipar Buru Batzarra	Marc Légasseren argazkia
2009/10/21	Leniz, Jokin	Norbanakoa	Batailoien irudiak
2009/10/21	Larrea Zabalo, Mikel	Antzuola Buru Batzarra	Antzuolako oihalaren irudia, “100 urte Antzuola” liburua argitaratzeko
2009/10/22	Camaño, Igor	DEIA	Irudiak: umeak itsasontziz irteten Santurtzitik
2009/10/23		DEIA	Hileta-errituen irudiak DEIAko artikulurako
2009/10/21	Oianguren Idígoras, María.	Gernika Gogoratuz	CRIC egitasmoa: Identitatea eta gatazka: kultur ondarea eta identitate berreraikuntza gatazkaren ondoren
2009/10/20	Gandaris, Ines	Ametx Zornotza	“Habla en cristiano” erakusketako irudiak
2009/10/22	Alberdi, Raimundo	Norbanakoa	Batailoien irudiak
2009/10/28		DEIA	Sabino Arana eta Nikole senar-emazteen irudiak
2009/10/29	Josune	Eusko Ikaskuntza	Gerrari buruzko dokumentu-

			iturrien liburu bat egiteko irudiak
2009/10/30		DEIA	"Agirre de Gernika a NY pasando por Berlín" izenburuko artikulurako argazkiak
2009/10/30	Lavin, Luis	Norbanakoa	Aita Kortaren irudiak
2009/11/03	Gaintza, Angel	Norbanakoa	1979ko urriaren 29ko irudia....
2009/11/04		DEIA	Argazkia: Agirre NYen, DEIAko artikulua baterako
2009/11/03	Altuna Gabiola, Ander	Norbanakoa	Juventud Vascari buruzko irudiak
2009/11/09	Eider	Baleuko	Gur-seko esparruko irudiak
2009/11/10	Saratxaga de Isla, Andoni	EGI	Durangoko bonbardaketaren irudiak.
2009/11/11	Rivera Blanco, Antonio	Norbanakoa	1966ko Aberri Eguneko irudiak, Gasteizen
2009/11/12	Arana, Iñaki	Norbanakoa	Luis Aranaren irudiak
2009/11/12	Larrea, Mikel	Antzuola Buru Batzarra	Irudiak: Antzuolako oihala eta ikurrin-emateak
2009/11/10		DEIA	Ertzaintzaren irudiak
2009/11/13	Gaintza, Angel	Norbanakoa	Alderdi Eguneko irudiak, gudariek.
2009/11/16		DEIA	Francoren irudiak
2009/11/18	Oregi, Benan	Eusko Jaurlaritza	Irudia: Galíndez Agirrerekin eta UNOko jendearekin

			Jaurlaritzaren Ordezkaritzan, NYen
2009/11/19		DEIA	E gotikodun irudiak
2009/11/20	Etxebarria, Jose Ramón	Norbanakoa	Ibaizabal batailoaren argazkiak eta historia,
2009/11/03	Leturia Mendieta, Jose.	Norbanakoa	Jose Leturia Aranbarri buruzko datuak; Derion fusilatua.
2009/11/23		DEIA	Sabino Aranari buruzko artikulua batekin joateko irudiak
2009/11/25	Jose María Urrutia	Norbanakoa	Argentinako, Uruguaiako eta Kubako Euskal Etxeen helbideak
2009/11/26	Oregi Iñurrieta, Benan	Lehendakaritza Eusko Jaurlaritza	Gerra Zibileko eta Francoren irudiak, Boiseko Museoak eskatuta
2009/11/27	Redondo, Maite	DEIA	Andereñoen argazkiak erreportaje baterako
2009/11/30	Elorriaga, Beatriz	Norbanakoa	Leizaola Bilbora iritsi zeneko argazkiak
2009/12/01	Kaltzada, Pili	Norbanakoa	“Habla en cristiano” dossierra Zornotzan tailer bat egiteko
2009/12/01	Gimenez Larrea, Gaizka.	Norbanakoa	Ikastolen irudiak
2009/12/03	Badiola,	Norbanakoa	Nemesio San Juan eta Ricardo Azpiritxagaren irudiak
2009/12/02	Fiachra Mc Donagh	Gernika Gogoratuz	CRIC proiekturako

			irudiak .
2009/12/06	Alaña Ulibarri, Juan Antonio.	Norbanakoa	Euskadi dulce aldea abestiaren hitzak.
2009/12/	Galarraga Arregi, Imanol	Norbanakoa	Gregorio Galarraga Azpeitiari buruzko datuak; Saseta batailoikoa.
2009/12/09	Mujika, Aitor.	Urtuellako EAJ-PNV	Urtuellako batzokiaren irudiak.

1.4.- ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

"Zumaia. 100 urte"

2009ko urtarrilaren 11tik 30era
Zumaiaiko batzokian



- **“Nunca más. Imágenes de guerra”**

2009ko apirilaren 3tik 19ra
Eskolondo Aretoan. Ea



- **Antzuola EAJ PNV 100 urte**

2009ko azaroaren 12tik 16ra
Olaran Etxea erakustaretoan



2.- PARTIKULARREK EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOARI EGINDAKO DOHAINTZAK. SABINO ARANA FUNDAZIOA

Urte honetan 1.505 pieza eman dizkigute, **30** pertsona nahiz erakundek egindako dohaintzez. Euskal Abertzaletasunaren Museoari ekarpenak egin dizkiotenen artean, nabarmentzekoak dira Jon Gutiérrez Irigoyenen bilduma, Sabin Zubiri Cearra, Jaime Domínguez Macaya, besteak beste.

2009ko dohaintza-emaileak dira:

- Aguirre Lekuberen jaraunsleak, Jose Antonio
- Agirre, Jon
- Ajuria, Peru
- Artetxe, Aurelio
- Atutxa, Juan Mari
- Ayo, José Raul
- Balzategiren sendia, Aurora
- Bikandi, Aitor
- Bilbao Ariño, Carmen
- Bizkai Buru Batzarra
- Castañeira, Rosa
- Domínguez Macaya, Jaime
- Estevez, José Ramón
- Gainza, Ángel
- Goiri, Javier
- Gutiérrez Irigoyen, Jon
- Landa, Iñigo
- Landa Villar, José Luiz
- Legarreta, Josu
- Madariaga Garamendi, José
- Moreno, José
- Muro, Nacho
- Noguerras, José Manuel
- Presillas, Amaia
- Ruiz Laka, Iñaki
- Santurtziko Uri Buru Batzarra
- Valbuena Pérez, Miguel Ángel
- Verdes, Joseba
- Zubiri Cearra, Sabin

7.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA



Sabino Arana Fundazioak 2009ko urtarrilaren 31n, larunbatez, eman zituen, hogeigarren aldiz jada, beraren izena daramaten sariak. Ekitaldiaren buru Juan Jose Ibarretxe Eusko Jaurlaritzako lehendakaria zela, aurreko aldietako 60tik gora saritu eta aurtengo sarituak bildu zituen Bilboko Euskalduna jauregian.

Sabino Arana Sarien 20. urteurrenean sarituak izan ziren: **Roger Etchegaray** euskal kardinala, akordioak bideratzeko eta herriak banantzen dituzten desberdintasunak leuntzeko duen gaitasunagatik; **Bilboko Arte Eder Museoa**, bere ehun urteko historian garatu duen lanagatik; **Euskadi Txirrindularitza Fundazioa**, Euskadiren izena arrakastaz eramateagatik munduko lasterketarik onenetan; Mungiako **Arteche Taldea**, nazioartean gailentzen ari den euskal famili enpresaren eredu bat; **Toti Martínez de Lezea**, teknika literarioa eta iraganaren ezagutza sendoa baliatuz, Euskadiren kultura eta historia ezagutarazteagatik, eta **Terrorismoak erasandako Madrileko M-11 Elkarte**a eta **New Yorkeko I-11 Familia Elkarte**a, biktima guztien memoriaren alde eta egia, justizia eta bakea lortzearren egunero egiten ari diren borrokagatik.

XX. sari hauetako unerik hunkigarrienetako batzuk 11-M eta 11-S elkarteetako presidentek, hurrenenez hurren, eta Etchegaray kardinala agertokira igo zirenean bizi izan ziren.

Terrorismoak erasandako Madrileko M-11 Elkarteko presidente Pilar Manjón And.ak adierazi zuen, gizarteak 11-Mko atentatuak gogoratu eta ez ahaztu egin behar duela, berriro halakorik egin ez dadin. Manjón And.aren iritziz, Fundazioaren saria “tragedia gertatu eta bost urtera berriro ematen dizuten elkartasunezko besarkada bat bezalakoa da”, zeren horrek esan nahi baitu, oraindik “bost urteren ondoren oraindik besarkatu nahi gaituen norbait dagoela”.

Orobat Pilar Manjónnek adierazi zuen, desio zuela, bera buru duenaren antzeko elkarteek, “ez daudenengatiko saminaz eta negarraz gain, ausardia eta indarra transmititzen ere jakin zezaten, samin horren bitartez zutik jarri eta terrorismoak uzten gaituena baino mundu hobearen alde borrokatzeko gai izateko”.

New Yorkeko I-11 Familia Elkarteko presidente Lee Ielpik, bere aldetik, Dorre Bikien atentatuan seme bat galdu zuelarik, zera gogoratu du: ”maite dugun jendearekiko eginkizun bat dugu, eta hori da, haiek ahaztu ez ditzagula, baina baita gogoratu behar dugu ere, oso erraza dela norbaiti gorroto hartzea; horrexegatik, gai izan behar dugu, denon artean, batasun-sentipen bat sortzeko, anaitasunezko sentipen bat, bakearen aldeko erantzun bateratua emateko.

Antzera, **Roger Etchegaray Kardinal** eta Justizia eta Bakea Pontifize Batzordeko mahaiburu emeritua eta mundu guztiko bazterretan banatutako gatazketan bitartekari zereginetarako Aita Santuaren mandatariak anaitasuna aldarrikatu zuen, “giza izaeraren funtsezko kontzeptua” denez gero.

Sariak hartzean, euskal prelatuak “anaitasun unibertsala” aldeztu zuen “sufritu arren, eta horregatik ere, etorkizunean sinesten duten eta barkatzen bizitzen saiatzen direnekin bat eginez”, eta zera erantsi zuen: “egiaztatu ahal izan dut, munduaren bihotz-taupadak badabiltzala eta justiziaren eta bakearen alde borrokatzen ari dela”.

Beste sari bat Miguel Madariaga **Euskadi Txirrindularitza Fundazio**ko presidentek jaso zuen. Sabino Arana Fundazioak, Fundazio hori saritzea erabaki zuelarik, berorren hamabosgarren urteurrenean, “erakunde horrek euskal kirola garatzen eta mundu mailan ezagutarazten eta gure kirolariak sustatzen egin duen ekarpenagatik” egin zuen.

Bilboko Arte Eder Museoak egindako lana ere saritu zen. “Bere ehun urteko historiaren hasiera, hiriko pintura-museo gisa apalki hasi zena, artezaleen erreferentziazko pinakoteka bilakatu da. Haren bilduman kopurua eta kalitatea, kronologiaren luze-zabaltasuna eta artegintzaren agerkeria ugari eta oparoa elkartzeko dira, arreta berezia ipinita euskal artistei eta euskal artearen arestiko historiari”, nabarmendu zuten Fundaziokoek.

Sarituetakoa beste bat **Toti Martínez de Lezea** idazlea izan zen, “gure historiako gertakariak birsortzeko, besteoi kontatzen jakiteko eta geure tradizioaren iturburuak guri begietaratzeko duen gaitasun liluragarriagatik. Toti Martínez de Lezeak egindako lan bikainak historia, batez ere Euskadirena, dibulgatzeko eta ezagutarazteko balio izan du, Sabino Arana Fundazioako arduradunen iritziz, irudimena, teknika literarioa eta iraganaren ezagutza sakona konbinatuz bakarrik egin daitekeena”.

Sabino Arana Fundazioak **Arteche Taldearen** lana ere goretsi zuen. “Bere bulego nagusiak Mungian dituen enpresa horrek, ekonomia globalizatuan ikus gaitzaten eta bideragarri izan gaitzen nahi badugu, zer izan behar dugun erakutsi digulako, eta 60 urtean nazioarteko erreferentzia bihurtu delako tresneria elektrikoaren eta irtenbideen garapenean.

Kultur jaialdian, gainera, dantza-ikuskizunak ere gozatu ziren: Paula de Castro eta Andrés Heras Nizako Opera Baletoko dantzari nagusiek Jon Ugarrizaren koreografiak dantzatu zituzten.

Beste urte batzuetako sarituak

Sariten urte seinalatua izanik, Fundazioak beste aldi batzuetako saritu ugari ere gonbidatu zituen ekitaldira. Iazkoan saritutakoetatik **Jose M^a Bengoa** sendagilea eta **Almudena Cid** etorri ziren, besteak beste. Gainerako Sabino Arana Saria jasotakoenen artean aipa ditzakegu: **Tibeteko erbesteko Gobernua, Amnesty International, Hego Afrikako Egia eta Adiskidetzaren Batzordea, Frente Polisario, Plaza de Mayoko Amonak, New Yorkeko Suhiltzaileak, San Egidio komunitatea, Gerrako berriemaileak, Retegi, Miguel Indurain, Helene de la Souchere** kazetaria eta euskal kausaren laguna, **Marino Lejarreta**, edo **William Douglas** (Renoko Unibertsitateko Euskal Gaien Programa), etab.

8.-DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka.

Abenduaren 5etik 8ra Fundazioa beste behin egon zen, “stand” birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, bertan Fundazioaren azken argitalpenak eta berritasunak erakusteko eta saltzeko. .

Azken urteon harrera ona izan dugu, salmentak nahiko onak izan direlarik gure “stand”etan, eta gure erakundeari eta garatzen dituen jardueri buruzko kontsultak eta informazio-eskaerak ere ugari izan dira

Honako hauek izan ziren libururik salduenak: “Abertzaletasuna”, “Sahara, askatasun-basamortua”, “Abertzaletasuna Lekeition”, “Nunca más. Imágenes de guerra 1936-1939”, “25 urte Alderdi Egunak”.

9.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTEHARTZEA

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2009an hurrengo hauek izan dira:

Orain dela urte batzuk hasita dagoeneko ohiko bihurtu delarik eta Euskadiko Galiziako Etxeen Elkartarekin elkarlanean, martxoaren 15ean gorazarrea egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere, EAEko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoekin eta bizirik atera zirenekin batera, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen.

Matxixako Elkartearekin eta Bermeoko Udalarekin elkarlanean, omenaldia egin zitzaien Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudari guztien senideei eta adiskideei.

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2009an hurrengo hauek izan dira:

Orain dela urte batzuk hasita dagoeneko ohiko bihurtu delarik, eta Euskadiko Galiziako Etxeen Elkartearekin elkarlanean, martxoaren 15ean gorazarrea egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak ere, EAEko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoekin eta bizirik atera zirenekin batera, Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen.

Matxixako Elkartearekin eta Bermeoko Udalarekin elkarlanean omenaldia egin zitzaien Matxixakoko guduan hil ziren Euskadiko Itsas Armada Laguntzaileko gudari guztien senideei eta adiskideei.

Giro País (Txile) elkarte Sabino Arana Fundazioan bisitari (09.07.16)



“Giro País – Dale una Vuelta” txiletar elkarte bisitari izan zen Sabino Arana Fundazioan. Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxarekin eta zuzendari Irune Zuluagarekin hitz egin zuten, euren egitasmoak eta ekimenak aurkezteko.

Giro País profesional eta independente nabarmen zenbaitek osatutako talde bat da; haien asmoa, elkarteko presidentea den Juan José Santa Cruz-ek adierazi bezala, “kezkatzten gaituenari buruz, hau da, Txileri buruz, haren orainari eta etorkizunari buruz hitz egitea, ikertzea eta ekimenak proposatzea” da.

“Dei egiten diegu, gure kezka bera dutelarik, bai politikagintza barrutik (alderdi politikoetako kideak) bai esparru horretatik kanpo (independentek) etorrira, alderdi politikoak arduratzen ez diren herrialdearen gaineko eztabaida hori osatu eta aberastu nahi duten pertsoneri”.

Argazkian, Juan José Santa Cruz, Irune Zuluaga, Walter Oliva, Juan M^a Atutxa, Mariana Aylwin, Tomas Jocelyn-Holt eta Koldo Atxutegi.

CatDem Trias Fargas Fundazioaren ordezkariekin bildu zen Sabino Arana Fundazioa



CatDem Trias Fargas Fundazioko zuzendari Agustí Colomines eta Ikaskuntza eta Programen buru Martin Aramburu, hurrenez hurren Sabino Arana Fundazioko lehendakaria eta zuzendaria diren Juan M^a Atutxa eta Irune Zuluagarekin bildu zirena, fundazio bien arteko elkarlan-ildoak arakatzeko asmoarekin.

CatDem Fundazioaren lan-ildo nagusiak aurkeztu ditu Colomines-ek, eta bai bera bai Atutxa bat etorri dira, egitasmo zehatzetarako, aldizkako lankidetzak ezarri beharra dagoelako iritzian.

Argazkian, Martin Aramburu, Juan M^a Atutxa, Agustí Colomines eta Irune Zuluaga, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan direla.

Orobat, hainbat ikastetxerekin elkarlanean, urte osoan hezkuntza-tailerrak eta erakusketak antolatu ziren, umeei eta gazteek hobeto ezagut ditzaten bizi diren ingurunea eta historia.

BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

Sabino Arana Fundazioak 2009 osoan bere arloetan burutu dituen jardueren artean, gure elkarrizketa eta gogoetarako mintzaguneak garatutakoa nabarmentzen da. Benetan trinkoa eta emankorra izan da. Hainbat gai oso desberdinak izan arren, besteak beste finantza-krisia, bizitza amaitzean, erabakitzeko eskubiderik?, Unibertsitatea, Afrika kontinentea, BBK, eta Everest giza ahaleginaren adibide gisa, guztietan ehunka bana pertsona biltzea lortu zuen. Horren adibide bat Mario Iceta Bilboko Elizbarrutiko gaur egungo gotzainak eta Luis Montes mediku anestesista eta Leganésko (Madril) Severo Ochoa Ospitaleko Larrialdietako zerbitzuburu ohiak parte hartu zuten mahaingurua aipatu dezakegu. Ia 400 pertsona bildu ziren asteazken batean, arratsaldeko 7.30etan, gonbidatu bi horiei entzuteko eta galderak egiteko. Ohiz kanpoko entzuleria, gure ustez, kontuan izanda mahaingurua zela.

Azpimarratu behar da, bestalde, gure deialdiak irekiak izan ohi direnez, haietan edonork parte har dezakeela, hau da, euskal gizarte osoa dela gure jardueren onuradun. Gogoeta eta elkarrizketarako mintzagunearen hitzaldiek eta mahainguruek, batez beste, 150etik gora entzule izaten dituzte, eta mintegiei dagokienez, haietan aztertzeiko hautatutako arlo bakoitzeko 30 eta 40 bitarte adituk parte hartzen dute.

Beste alde batetik, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian eta Museoan artatzen dituen funts ugari eta askotarikoak jende artean hedatzea xede, Sabino Arana Fundazioak erakusketak antolatu ohi ditu, material historikoak erakusteko, hala agiritegikoak, nola liburutegikoak, hemerrotekakoak, nahiz museokoak eta beste, zeintzuk Fundazioak Artea Arratiako Meñaka eraikinean baititu gordeta. 2009an aldi baterako erakusketak antolatu ditugu Zumaian, Ean eta Antzuolan.

Erakusketak, kokapen geografikoaren eta iraupenaren arabera, batez beste, 800 – 1.000 bat pertsonak ikusten dituzte, kasuren batean 5.000ra ere iritsi direlarik.

Oso harrera ona izan dute historia-tailerrek ere.

Beste alde batetik, dagoeneko, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren 32 zenbaki argitaratu dira (beste lau, joan den ekitaldian). Zortzi urteko ibilbide horretan aldizkari hori, hiruhilabetekaria, elkarrizketa eta debate ideologikorako tresna bilakatzeko asmoarekin sortua eta Euskal Herrian mintzatzen diren hiru hizkuntza ofizialetan idatzia, sendotzen joan da, euskal politika-, kultura-, ekonomia- eta gizarte-esparruetan ezaguna egin delarik.

Zortzi urte honetako esperientziak eta jaso ditugun iritziek eta iruzkinak orain artean izan dugun ildoari eustera adoretzen gaituzte, hots, elkarrizketa eta debate ideologikorako tresna gisa, pertsonen eta herrien askatasunerako eskubidea, gizarte- eta politika-taldeen askatasunerako eskubidea berrestera, autodeterminaziorako eskubidea herrien askatasun politikoaren adierazpide dela onetsi eta agertzeaz batera, eta, era berean, bere gain hartuz euskal gizartearen izaera anitza, izan ere, gainera, hark abertzaleaz bestelako politika eta gizarte agerpenak aintzatestea exijitzen du.

Finkatu den gure beste kultura-jarduera bat Sabino Arana Sariak da; sari horiek Fundazioak bere jarduerekin hasteaz batera, 1988an, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa berdinak dira, hau da, gizarte zerbitzatzeko joranagatik eta gogo biziagatik nabarmendu diren erakundeei zein norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea besterik ez.

Sabino Arana Sariak sortuz geroztik urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu egin du saria, zein Sabino Arana Fundazioko kideek, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta, norbanakoka, bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsonari eman ohi baitiete euren esker onaren erakusgarritzat.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak gizarte- zein politika- arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua ditu,

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona joaten dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, haietariko hainbaten ekitaldietan parte hartzen dugu gogara (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen ordezkari zenbait, ikastetxeak, etab.).

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, behar bezala bete ditugula aurreikusitako asmo eta helburuak.